



## «Hurrengoan polo subiranozale indartsuagoa beharko da»

Gernika, 1941. ETAko liberatu izan zen 1964 aldean. Bi urteren ostean Venezuelara ihes egin zuen. 1980tik 1987ra *Egineko* zuzendaria izan zen; eta *Deiako* zuzendariorde gero. EITBko Nazioarteko Zabalkundearen zuzendaria da gaur egun.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Iñigo Azkona

Kazetaritza lanetan (1980an) hasi zinetik gaur egunera bitarte, zer nabarmenduko zenuke?

Orduko kazetaritza interesgarriagoa zen egungoa baino, *Egineko*a eta dena oro har. Kazetariak profesionalagoak, libreagoak, arduratsuagoak zirela uste dut. Esaterako, *El País* edota *Diario 16* produktu onak ziren. Bakoitzak bere ildoa zuen noski, baina errepresioaz informatzen zuten. Egungo egunkariak baino aberatsagoak eta argiagoak ziren. Hedabideen inguruan beti daude interes politiko-sozialak, baina orduko kazetariak bazuten bestelako indarra edo bazutela barneratuta zeukaten. Enpresak ere malguagoak ziren. Egun hondua jotzeko gertu gaude. Kazetariak trokelean eginak ateratzen dira fakultate-tik, nahikoa dute lana bilatzen eta hari eusten, ez daude beren kasa arduratzen hartzeko prest, ardurak eskatu behar zaizkie.

Orduko kazetaritza mota agortuz joan da, antza. Prentsa idatzia desagertuko al da?

Ez dut uste. Digitalizazioaren garaia heldu da, baina ohean gaudela zer da erosoagoa liburu bat baino? Paperak bere lekua dauka. Noski, oraingo orrialde kopuruak eta gehigarriak desagertuz joango dira. Alegia, formatoa eta baliabideak aldatu beharko dira. Baina horretaz gainera, prentsak mamia berri beharra dauka, notiziak interpretatzeko beste modu bat bilatu dezake. Editorialak oso aspergarriak dira. Adibidez, nik *El País*eko edo *Garako* editorialen izenburuetan errepertuta badakit zer esango duten, ez dago ustekabekorik. Arazoa ez da prentsarena soilik, hedabideena da oro har. Hor duzu kirol kazetarien kasua, egunero daude izar indartsuen albo-alboan. Nola ausartuko dira gero haietaz zerbait zorrotz esaten?

**Venezuela herrialdea hizpide. Iruña Urrutikoetxea venezuelar-euskaldunarekin izan zenuen polemikaz jardun nahi nuke. Zer gertatu zen?**

Iruña nire ikaslea izan zen Venezuelan. Erbesteratuen alaba da, bertan jaioa. Venezuelan mestizoez agintzen dutela idatzi nuen *Deian*, eta gogoe-tak ez zuela bakarrik balio latinoamerikarentzat nioen, Kubarako ere balio duela. Funtsean [Hegoa Amerikan] arrazismoa oso presente dagoela esaten dut, indigenak oso mespre-txatuak direla. Baina Venezuelan hori ez da onartzen, beste toki batzuetan agian bai. Kuban “esos negros de mierda” entzun dezakezu, ezkerre-koek esanda. Hugo Chávezen feno-memo politikoa azaltzean “arrazis-moa” aipatu nuen eta Iruña haserretu zen: “Hemen ez dago arrazismorik” esan zuen. Bera oso *antichavista* da, euskaldun gehienak bezala.

**Zu non kokatzen zara?**

Nik “Chávez baino okerragoak haren kontrakoak –*antichavistas*– begitantzen zaizkidala” esan dut eta batzuk haserretu dira noski. Ez dut uste Chávezen monarkia mota hori Venezuelarentzat irtenbidea denik, baina alternatibak ez dira hobetoak, eta bere kontra egiteko moduak faxistak dira. Chávezen aurkakoa estatu kolpea izan zen, baina haren aurkako euskal-venezuelarrek ez dute onartzen. Esan dezatela, kolpea zuritzeko, “kausa on baten alde” izan zela. Ni Venezuelako egoerarekiko

kritikoa naiz eta Chávezekin ere. Baina ez dut gaiaz gehiago hitz egin nahi, kanpotik oso erraz hitz egiten delako, han biziz gero gauzak beste modu batean ikusten dira. Ni ez naiz inor inori nola jokatu behar duen ezer esateko. Badakit euskal jatorriko jende asko sufritzen ari dela, jendea etorri dela ezin duelako han bizi.

**Hego Amerikako hainbat herrialdetan ezker alderako joera indartu dela esaten da azken urteetan. Zer deritzozu?**

Horretan ere bakoitzak interesatzen zaion egoera sozio-politikoaren araberako iritzia dauka. Adibidez, Txileko presidente Michelle Bachelet sozialista da. Norbaitek pentsatzen al du Txilek sozialismoarekin zer ikusia duenik? Txile herrialde oligarkikoa da, eskuindarra, Bachelet presidentea izan edo ez. Nikaraguako Gobernua ezkertiarra da, baina Ortega ezkertiarrek desprestigiatuta dago. Ez bakarrik bere amodiozko aferak direla-eta, lapurra delako baizik. Venezuelakoak azterketa sakonagoa merezi du. Dena den, Kolonbiako Gobernua alde batera utzita, bai, badago aldaketa moduko bat herrialde gehienetan. AEBak oso desprestigiatuak daude, inork ez du iparramerikarren lagun bezala agertu nahi. Lehen ereduak ziren baina orain oligarkiak berak –Bushen agintaldiaren ondoren– zalantzak ditu. Obamarekin zer gertatuko den ez dakigu. Kontua da AEBek beheko herrialde horiekiko interesa baztertu zutela.

**EITBko Nazioarteko Zabalkundearen zuzendaria zara, Canal vasco-rena eta ETB Sat-ena. Zer balorazio egiten duzu telebista kate hauen lanaz?**

Kanpo aldera ari diren kateak dira. *Canal vasco* latinoamerikarako ari da, eta *Sat* Europarako. Daukagun aurrekontua kontuan hartuta balorazio ona egiten dut. ETBko esparru txikia handitzeko modua kanpora begira lan egitea da. Euskaldunok jakingura handia sortzen dugu munduan. Latinoamerikan denek ezagutzen dute *vasco* hitza, eta *vasco* ez dute sekula irain bezala erabiltzen. Bertako hedabideetan agertzen gara hemengo egoera politikoaren eta ETAREN atentatuak direla eta. Ez da berdin gertatzen Kataluniako telebistekin. Hauen aurrekontu handiagoak izango dira agian, baina ez dute guk bereganatzen dugun ikusmina lortzen.

**“Euskal Herria zazpi probintziara mugatzea akatsa litzateke” esan ohi da.**

Bai, noski. Nik nire sailerako aurrekontua handitu nahi nuke eta diasporarako askoz ere diru gehiago erabiliko nuke. Jaurlaritza lanean ari da, baina oraindik ez dira diasporak eman ditzakeen aukera guztiak barneratu. Euskaldunok gure asmoak azaltzeko beharra daukagu eta horretan badugu zer egin. Euskal Herriaren bereizkuntza geuk esplikatu behar dugu: zergatik eskatzen dugun independentzia edo autonomia; geure kultura eta hizkuntza guk geuk azaldu behar ditugu. Ez bakarrik informazio arloan, lanaren eta enpresen esparruetan ere bai. Baina kultura gurea da eta ez badugu geuk esplikatzeko, akabo. Gainerakoan, nik ez dut Burgosko jendeak baino hobeto bizi nahi, politikariek dioten bezala “autogobernua handitu behar dugu hobeto bizitzeko”. Argudio elektoral bezala ulergarria da. Nik denok bizitza duina izatea nahi dut.

**“ETAko oraingo kideak liluratuta daude egungo hedabideekin, normala, bere garaiko seme-alabak dira. Dena idatzi eta azaldu behar dute”.**



**Maria Antonia Iglesias-en *Memorias de Euskadi***

**Zu zara *Memorias de Euskadi*-n politikari –elkarrizketatua– ez den bakarra.**

Maria Antoniak eskatu zidanean: “Niri zergatik? Ni ez naiz politikaria” esan nion. Interes berezia zuen non-bait. Iglesiasek, batez ere, *Eginen* funtzionamendua ezagutu nahi zuen.

**ETAren menpe ote zen jakitea edo?** Bai, nolabait.

**Iglesiasek politikari batzuen hitzak manipulatu dituela zabaldu da.**

Ez dut besteena irakurri. Halere, politikari batzuek ni baino tontoagoak dirudite. Nirean akatsak

daude, ez fede txarrez eginak. Gauza batzuk ez dira osorik agertzen. Tituluetan eta ladiiloetan gauzak esajeratzen dira, baina ez naiz manipulatu sentitu.

**Zein asmoz hitz egin zenuen berarekin?**

Besteak beste, ETAk gaur arte eraman duen borrokaz gogoetatu behar duela adieraztea. Hau da ETAk esan dezan: “Guk asko sufritu dugu eta sufrimendu asko eragin dugu. Erabaki dugu amaitzea eta orain herriari –herriko eragile guztiei– egoera konpontzen laguntzea eskatzen diogu”. ETAk hori erabakiko balu

jende asko mobilizatuko litzateke. Baina, ezein indar politikok ez dezala lidergo politikoa hartzea espero. Hori litzateke berriz ere oker handiena. Abertzaletasuna ez da inorena. EAJko parte batean dago, EAn dago eta Aralarren ere bai. Batasuna da ezker abertzalearen erreferente nagusia. Baina abertzaleek ezin dute abertzaletasuna paisaia bakarreko kolorea balitz legez jardun. Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa ez dira berdinak, eta ez dira berdin Barakaldo eta Markina. Edo Irun eta Azpeitia. Eta zer esan Arabaz eta Nafarroaz? Eta ETA desagertu den hipotesian hitz egiten ari naiz.

**Diasporako euskaldunek nola ikusten dute Euskal Herria, eta euskal arazoa?**

Lizarra-Garaziko garaia hau konpontzeko unea izan zela ikusi zuten, ez haiek bakarrik, abertzale denok hori ikusi dugu. Diasporako euskaldun gehienek erreparo handia izan dute ETArekiko, baita frankismo garaian ere. Orduan ez bazuten ulertzen, gaur egun? Egun ezkerreko joerakoek ere ez dute ETAren guda hau ulertzen. Ez ulertzeak kontra daudela esan nahi du, noski.

**Loiolako elkarrizketen ostean, ETAren jarduerak harritu al zaitu?**

Hasteko ni oso harritua geratu nintzen Loiolako elkarrizketak eraman ziren modurengatik. Alegia, “ergel aurpegia jartzeko prest nago, baldin eta arazoa konponduko bada” pentsatu nuen. Baina, hara, bakar batzuk baino ez ziren bildu. Eta horiek, Egiguren eta Otegi lehenik, gure gauzez aritu ziren eztabaidan. Eztabaida bada presoen arazoa nola konpondu, HB edo Batasuna legalizatzea, oso ondo. Baina Euskal Herriak nolakoa izan behar duen gaurko ezker abertzalearen esku utzi behar al da? Edo EAJren esku? ETA eta Gobernuak bildu direla?! Ondo! Preso eta atentatu gehiago ez dela izango erabaki dutela, pozten naiz. Gatazka gainditzeko ordea, eztabaida zabalago bat behar da, indar gehienek landua. Eta beste

gauza inportantea bat: elkarrizketak ezin dira ezkutuan izan.

**Alegia...**

Alegia, lehenik PSEko eta Batasunekoak bildu ziren, eta bidean ito. Orduan EAJri deitu zioten. Baten batek galdetu ei zien: “EAK, EBK eta abarrek zer diote zuen erabakiez?”. Erantzuna ohikoa: “Hemen Euskal Herria ordezkatzan duten indar nagusiak gaude”. A, bai! 1982 aldean, Garaikoetxea lehendakari zela, hainbat indar politikoen arteko elkarrizketak bideratzeko saioak izan ziren. ETAK bi kazetari joatea eskatu zuen. Beste batzuen artean Sanchez Erauskin eta biok egon ginen lekuko gisa. Ezker abertzaleak orduan ezin zela ezkutuko ezer egin zioen. Eta orain? Loiolakoa oso txarto bizi izan nuen. Noski, emaitza onak izango diren esperantza zabaltzen da, promesak...

**Bakearen alde Ave Maria...**

Bai, eta tonto aurpegia jarri! Hurrengo saioan polo subiranozale indartsuago bat beharko da, bestela ez dago aurrera egiterik.

**“Nik etxe honetako ahultasunak ezagutzen ditut, eta badaude. AHTz zer esaterik badago, baina ETA sartzen den unetik ez duzu ezer esateko indarrik”**

**EITBko egoitzaren aurkako atentatuak zer iradoki zizun?**

Atentatua gutxiarazi gabe, Inazio Uriaren hilketak izan zen gogorra. Nik etxe honetako ahultasunak ezagutzen ditut, eta badaude. AHTz zer esaterik badago, baina ETA sartzen den unetik ez duzu ezer esateko indarrik. ETAK dena zapuzten du. ETAKo oraingo kideak liluratuta daude egungo hedabideekin, normala, bere garai-ko seme-alabak dira. Dena idatzi eta azaldu behar dute, dena fitxategietan daukate. Dena idazten dute, *poli-milien* antzera. Onerako eta txarrerako, noski. Nik lehenengo ETA ezagutu nuen eta logika bes-telakoa zen: “Ez idatzi ezer. Fitxategi eta argazki guztiak erre”.

**Nola ikusten duzu hedabideekiko ETAren jarrera, eta ETA oro har?**

ETAK hedabideei garrantzia handiegia ematen die, eta garrantzia dute noski. ETAK “txarto esplikatzen digute. Kazetariak zakurrak dira” dio. Baina, tira, kazetaria bel-durrarazten baduzu, agian lana utziko du, baina ez da zure alde paratuko. Egia esanda, hedabideek ez dute egoera konpontzen laguntzen ere. Hale ere, hedabideez horrenbeste arduratu barik ETAK herriaren laguntza galdu izana eta gizartea geroz eta gutxiago mobilizatzearen arrazoia aztertu beharko litzuke. ■